



VIII. Maratoia hemen da, Bihotzetik plazara.- Villa Mirentxun egindako agerraldian aurkeztu zuten atzo Euskararen Zortzigarren Maratoia. Pablo Barrio alkatea, Estitu Alkorta eta Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria arduratu ziren aurkezpena gidatzeaz. Maratoia urriaren 20 eta 21ean izango da eta aurtengo leloa Bihotzetik Plazara. Irudi eta Webgune berritua erakustez gain, zortzikoteko kideak ezagutzeko aukera izan zen. Aurkezpenera herriko elkarteetako ordezkari eta kide asko gerturatu nahi izan zuten euskararen festa handi honi euren babesa erakusteko asmoz. Dagoeneko martxan dira lan talde ezberdinak eta hauetan laguntza emateko deialdia egin zuten antolatzaileek.

3 HITZALDIAK

Gizarte balioak hizpide Danok Kideren eskutik

Maiatzaren 7, 8, 9 eta 10erako prestatu ditu Danok Kide elkarteak gizarte balioen inguruko "Balioetan Hezi" IX. jardunaldiak. Hauen zuzendaria Pello Sarasua izango da, Baketik taldeko kidea eta bere helburua "bizikidetzaren berradiskidetzea" lortzea izango da.

AISIA

Udaberriko bertso saioa eta Azkorterera erromeria

Asteburua ekintzaz beteta dator. Larunbatean etxeko txikiek Amaraun jaialdian parte hartu ahal izango dute Okendon. Ondoren, 22:00etan Udaberriko Bertso saioa izango da Manuel Lekuonan eta igandean berriz, Azkorteke erromeria ospatuko da goizeko 11:00etatik aurrera.

6 PILOTA

San Pedro Jaiak txapelketa abiatu du Intza elkarteak

Intza elkarteak aurten ere San Pedro Jaiak XX. esku pilota txapelketa antolatu du herriko gaztetxoentzat. Helduentzat ere beteranoen II. txapelketa antolatu du aurtengoan elkarteak aurrekoaren arrakasta ikusita. Hauetan izena emateko azken eguna maiatzaren 15a izango da.





Donde las estrellas son ellos

Txakurrentzako ileapaindegia

Txakur eta katuen denda

txintxarri **Moztu bono hau, eta % 15eko deskontua lortuko duzue zure txakurraren garbiketa eta moztetan** txintxarri

Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com

Neure kabuz



Gorka Lasa

Zorionak, Elena!!!

Hiru euskal emakume sukaldariren izenak aipatzeko esango banizue, arazoak izango zenituzketela uste dut. Lagunen artean egindako galdeketa txiki baten ondoren, biren izenak nahiko erraz bota dizkit jendeak, baina hirugarrenarena....

Gure artean ezagunena Elena Arzak da, Juan Mari Arzaken alaba, eta ondoren, Karlos Argiñanoren arreba den Eva Argiñano. Horrela aipatzen ditut, jendeak horrela ezagutzen baititu. Betidanik egin izan dute lana gerizpean, hurrenez hurren, aitaren eta anaiaren gerizpean, baina inola ere ez nituzke gutxietsi nahi.

Orain hogeit bat egun, Elena Arzak munduko emakume sukaldaririk onena izendatu dute, eta hemendik berari nire zorionik beroena.

Euskal sukaldariak biziki preziatzen, balioesten, aintzat hartzen dituzten hainbat sari, gida eta zerrenda aski ezagunak dira gure artean, baina inork gutxi izango du beste sari honen berri, emakume sukaldariena, alegia.

Gure etxeetako sukaldean emakumea aritzen da oro har, betidanik izan baita bere esparrua.

Hala ere, etxeetatik kanpo, sukaldea gizonen mundua dela dirudi. Jatetxe, elkarte, gida eta zerrendetan gizonak dira nagusi. "Sukaldari" hitza entzun orduko, gizon itxura etortzen zaigu burura. Egia da, gizarte antolaketa beharrik, emakumea etxeko lanez arduratu izan dela nagusiki, eta honetaz baliaturik, gizonek beraien irudi publikoa sortzen eta saltzen jakin izan dutela.

Zerrendak zerrenda, eta sariak sari, gizonetako "izarrak" lortzen dituzten bitartean, emakumeek izarren artean bezala sentiarazten gaituzte. Edo, ezagutzen al duzue amonaren kroketa edo amaren patata tortilla baino hobea egiten duen gizonik?

Zorion agurrak



Gorka eta Alberto

Zorionak bikote!!! Ederki ospatuko dugu larunbatean.



Aimar

Zorionak txapeldun!!! Bost muxu handi famili guztiaren partetik.



Ekaitz

Zorionak. Oso ondo pasa. Muxu potoloa Amaiur, Imanol eta Aizkoaitzen partetik.



Koan

Zorionak Pirata zure hirugarren urtebetetzegatik, familiaren partetik.



Ane

Zorionak etxeko printzesari bere 8. Urtebetzean! Eneko, aitaxo eta amatxoren partetik.



Aiora

Zorionak sorgintxo!!! Txokolatezko bost muxu amatxo, aitaxo eta Oierren partetik.



Julen

Zorionak! Sei muxu handi eta ondo pasa zure eguna, Endika eta gurasoen partetik.



Ainara

Zorionak zure 24. urtebetetzean. Hoberena zara polita. Arkaitzen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- Lehen Jaunartzeko 2 jantziak saltzen ditut, oso prezio onean. Tel. 688 667 982
- Suzuki Burgman 125 motoa salgai. 8.000km. Prezioa negoziatu daiteke. 686 964 807
- Toyota Corolla salgai. Oso baldintza honetan eta prezio oso interesgarrian. 686 964 807.
- 90ko ohe batean bihurtzen den sehaska saltzen dut. Azpitik beste ohe bat dauka ere. Interesatuak 685737428ra deitu.
- Bugaboo markako kotxe kapota gehi hainbat osagarriak salgai. Interesatuak 685 737 428ra deitu.
- Seat Ibiza Diesela Salgai. Tfnoa: 669 426 399

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 50 euro. Harremanetarako, 943 36 24 72.

- Etxea salgai erdialdean, bizitzeko modukoa, altzariek. Bi logela, sala, sukaldea eta komunak. 171.288 euro. Harremanetarako deitu 659 594 797 zenbakira.
- Bi hilaletarako pisu bat behar da alokairuan (iraila, urria eta azaroa) Bi logelarekin. Harremanetarako, 652 762 221 Elena
- Apartaleku bat alokatzen da, Hipodromo etorbidea. 652726532
- 50 mko apartamentu bat alokatzen da zentroan. Eraikuntza berria dago. Gela bat, komuna eta sukalde-egongela dauka. Interesatuak deitu 616 164 823 Maider.
- Tarteko pisua duen 29 m²-ko lokal komertziala saltzen da Zabaletan. Interesatuak, deitu 615 793 320 telefono zenbakira
- Pabilioi industrialak saltzen da Brunet-en (Lasarte-Oria). 250 metro karratu. Harremanetarako, 658 910 569.

Heriotzak Jaiotzak

Heriotzak

- Javier Goikoetxea Oliden, apirilaren 30ean, 69 urte zituela.
- Joxe Furundarena Elizegi, apirilaren 28an, 85 urte zituela.
- Juan Caballero Baile, apirilaren 28an, 85 urte zituela.
- Tomas Perez Caballero, apirilaren 27an, 89 urte zituela.
- Joxe Balerdi Mintegi, apirilaren 27an, 83 urte zituela.
- Jose Ignacio Zabala, apirilaren 27an, 79 urte zituela.
- Patricia Arenas Mateos, apirilaren 27an, 62 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 4 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 5 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 6 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 7 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 8 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 9 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 10 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Lan-eskariak

- Mutil bat eskaintzen da lehenengo mailako ofizial modura... zarpiau eta alikatuetan aditua. 20 urteko esperientziarekin. Interesadunek 667085834ra deitu.
- Haurrak eta helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Esperientzia eta erreferentziak dituen neska naiz. Telefono: 662187787
- Gizonezkoa hainbat lanetarako prest: eraikuntza, lorazaintza, banatzaile, karga eta deskarga lanak etab...M.Afzaal 602187900
- Emakumea eskaintzen da arratsaldeko 15:00tik 19:30ra garbiketa lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko. Harremanetarako 619 803 199 telefono zenbakira deitu.
- Gizonezkoak nekazaritza lanak edo beste edozein egingo lituzke 14:00etatik aurrera. 625 423 540.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

AISIA

Sorpresaz betetako Amaraun Jaialdia

Egun berezia izango da biharkoa herriko gaztetxoentzat, Okendo plazan Amaraun jaialdi erraldoia prestatu baitute beste behin, aurtengoan gainera, sorpresaz bete izango da

Sorpresaz beteriko Amaraun Jaialdi paregabea antolatua dago biharko. Okendo plazan egingo dira ekintza eta txoko desberdinak egun osoan zehar eta besteak beste, puzgarriak, tailerrak, berbera edota mozorro desfilea izango dira egun berezi honetan.

Aurreko urteetan bezalaxe, egitarau oparoa dakar aurtengo Amaraun Jaialdiak. Goizean goiz hasiko da festa, 11:00etatik hasita 13:30ak arte puzgarri, ludoteka eta eskulanen taileren ekintzak egingo dira.

Ostean, makarronada egiteko tartea hartuko dute 13:30etatik 15:30etara eta arratsaldean berriro ere abiatuko dira puzgarri, eskulan tailer eta ludoteka 15:30etatik 18:00etara bitartean.

Ordu horretatik aurrera, 18:00tan hain justu, mozorro desfile koloretsua hasiko da eta 18:30etan haur berbera izango da Xilipurdi taldearen



Aurreko urteetan ere primeran pasa zuten herriko gaztetxoek Amaraun jaialdian.

eskutik "Hau Jaia!" izenpean. Eguna eta Amaraun Jaia bukatzeko, txokolatada goxo-goxo bat prestatu dute nahi duenak dasta dezan.

Mozorro lehiaketa

Antolatzaileek azaldu dutenez, jaialdira mozorrotuta joateko aukera dago, eta horretara animatzen dituzte haur guztiak.

Izan ere, arratsaldean mozorrotuta agertzen direnen artean desfilea egingo dute

eta sariak ere izango dira mozorrorik politenentzat... Ez nolana hiko sariak gainera, maiatzaren 12an "Zazpikoloroa" ikustera joateko sarrerak lortuko baitituzte irabazleek.

Bazkarian parte-hartu

Bestalde, aurtengoan ere "makarronada" egiteko asmoa daukate Amaraun Jaialdian. Bazkaria Okendo plazan bertan izango da eta lau urtetik gorako haurrentzat dago prestatua. Lagunartean egindako

bazkari goxo batez gozatu ahal izango dute Amaraun Jaialdi ederrean.

Bazkarian parte-hartu nahi duen orok Ttakuneko bulegotik pasa beharko du izena-ematera edo 943 371 448 telefonora deitu beharko du bere datuak emateko.

Antolatzaileek gogorarazi nahi dute ekintza guztiak doan izango direla. Gainera, euria eginez gero, Jaialdia Loidi-Barengo pilotalekuan izango dela jakitera ematen dute.

Gizarte balioak herritarrengan sustatuz

Maiatzaren 7, 8, 9 eta 10erako prestatu ditu Danok Kide Lasarte-Oriako elkarteak gizarte balioen inguruko "Balioetan Hezi" IX. jardunaldiak.

Aipatutako jardunaldien zuzendaria Pello Sarasua izango da, Baketik taldeko kidea eta bere helburua "bizikidetzaren berradiskidetzea" lortzea izango da, bai maila pertsonalean eta baita gizarte mailan ere. Koordinatzaile lanetan arituko dena berriz, Xabier Andonegi parrikioa izango da.

Bizikidetzaren sustatu asmoz, maiatzaren 7an hasiko da lau egun iraungo duen hitzaldi zikloa.

Manuel Lekuona kultur-etxearen hitzaldi aretoan izango dira mintzaldi guztiak, arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Gatazka mintzagai

Lehenik eta behin "Gatazkari hurbiltzea" gaia jorratuko dute astelehenean.

Astearteko gaiak aldiz, gatazken ikuspuntu pertsona-



"Balioetan Hezi" jardunaldien bederatzigarren edizioa izango da datorren astean Manuel Lekuona kultur-etxean burutuko dena.

lari egingo dio erreferentzia, "Gatazken eta berradiskidetzaren aurrean gizartearen konpromisoa" izenpean.

Maiatzaren 9an, asteazkenean, gatazka ikuspuntu globala aztertuko dute, "Gatazken eta berradiskidetzaren aurrean gizartearen konpromisoa" gaitzat hartuta.

Azkenik, maiatzaren 10ean "Sufrimendua eta

gatazka" hitzaldia eskainiko dute.

Hitzaldi guztietan hainbat galdera planteatuko badituzte ere, nagusiki honako hauei erantzuna ematen saiatuko dira antolatzaileak: Zertan aldatu beharko genuke gure bizitza hobetu nahi badugu? Zer egiten dut mundu hau aldatu eta berritzeko? Zer egin dezaket gure herria alda-

tu eta hobetzeko? Izan ere, argi dute antolatzaileek bizitzarik ez dugula aldatuko bizitzeko era aldatzen ez dugun bitartean.

Bizitzeko era aldatuko bada, "milaka ekintzen bateztatzea" beharrezkotzat ikusten dute antolatzaileak eta hori lortzeko argibide gehiago emango dituzte astelehenean hasiko den hitzaldi zikloan.

IRTEERA

Oinatzekin herriko mugak ezagutzen

Azkorteko erromeria egunarekin batera burutuko du Oinatz taldeak herriko mugetatik zeharkaldia. Irteera igandean goizeko 9:00etan abiatuko da Jalgitik. Lasarte-Oriako historia eta mugak ezagutzeko aukera ona da hau.

Antolatzaileek aipatu dutenez, nahi dutenek Azkorten geratzeko aukera izango dute eta bazkaririk ez dagoenez, ez dago aurrez honetan izena eman beharrik.

HAURRESKOLA

Izena emateko epea Andre Joakina Enean

2012-2013 ikasturterako izena emateko epea zabal da herriko Andre Joakina Enea haurreskolan.

Matrikulazioa maiatzaren 11ra arte egin ahal izango da Manuel Lekuona kultur-etxean 9:00ak eta 13:30ak bitartean. Informazio gehiago jasotzeko 943 376 181 zenbakira deitu edota kultura@lasarte-oria.org helbidera mezua bidali behar dute interesa dutenek.

ERROMERIA

Igandean Biyak Batekoentzat ogitartekoak

Biyak Bat elkarteak igandean, Azkorteko erromerian ogitartekoak banatuko dizkie elkarteok kideei.

Interesa dutenek txartela eskuratu behar dute aurrez elkarteok bulegoan.

Era berean, erromeriara gerturatu nahi direnei jakin arazi nahi diete, goizeko 9:00etatik aurrera autobus zerbitzua izango dela egoitza aurreko geltokitik abiatuta. Bazkideak erromeria honetan parte hartzea animatzen dituzte.

BERTSOLARITZA

Udaberriko bertso saioa kultur-etxean

Ttatur elkarteak Udalarekin bertso saio berezia antolatu du bihar 22:00etan. Andoni Eguña eta Maialen Lujanbiorekin ariko dira Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsoetan. Kukuka antzerki eta dantza eskolakoek aurkeztuko dute eta herriko hainbat kantari, dantzari, antzezle, musikaririk... parte hartuko dute. Ezusteko betetako ikuskizuna izango da.

euskararen 8. maratonia

bihotzetik plazara

www.euskararenmaratoia.com



Badator Euskararen Maratoia, urriaren 20 eta 21 ean, Okendo plazan

Webgunea berritu da eta sare sozialek lekua izango dute aurtengo festan

Atzo Villa Mirentxun aurkeztu zen ofizialki Euskararen Zortzigarren Maratoia. Ageraldian festak izango duen leloa eta irudia erakusteaz gain, oholtzat lagunak ezaquitzeko aukera izan zen. **Hiru dia errepikatzaileak, Agus, love Mari eta Rebecca, beste post laguntzar ordea lehen aldia izango da hau.**

Dagoeneko hemen da Euskararen Maratoia zortzigarren edizioa. Gezurra badinadi ere lau urte igaro dira azken Maratoti, "Kortizeko modukoak" izan zen Maratoti hartatik. Aurtengoa "Bihotzetik plazara" dator.

Okendo plaza izan da hasieratik festa honen erdigune eta aurtengoan espazio hau ere eraberrituta dugu. Ondo gogoratuko duzue, azken Maratoia bukatu bezain laster ibi zuten Okendo plaza zaharra. Aurtun

beraz, Maratoiak estreinatzeko dauka espazio, plaza, elkarune hau. Euskarak 40 orduz protagonismo osoa hartuko du eta ohi bezala zortzikoteak izango du oholtzatik festa gidatzeko ardura.

Zortzigarren edizio honetan badira hiru errepikatzaile zortzikotearen baitan. Agustín Mujika, Jose Mari Agirretxe eta Rebecca Garcés. Hirurak esperientzia handikoak, lehen biak hasieratik izan dira festa honen parte eta eragile eta esperientzia honekin

lehenengoz oholtzara igoko diren lagunei laguntzeko ardura ere izango dute. Adin eta perfil desberdinetako zortzikotea osatzea lortu da eta dagoeneko lanean dharidute ikusleak harritu eta ondo pasa aratzeko eskimen eta ekintzak prestatzen.

Teknologia berrek ere lekua izango dute aurtengoan. www.euskararenmaratoia.com webgunea berrituta dator zortzigarren honetan eta hau izango da festaren euskarriko bat. Izan ere, bertan euskararen festa handi honen inguru

riko informazio guztia jasotsez gain, zortzikoteko kideen aurkezpena, Maratoiko kantak entzungai eta eskuragari daude, bideo klip berria eta aurreko edizioetako argazki eta bideo galeria oparota besteak beste prest dira. Era berean, sare sozialean murgilduko da Maratoia aurtengoan. Hala ere, hau aurreago izango da.

Oraindik ezustekoak asko izango direla aurreratu daiteke beraz, adi jarraitu Maratoia inguruan datozen hilabeteetan sortuko diren berriak



Agus Mujika: Bera izan zen Maratoia sartzaila-ko bat. Aurtengoan ere ezin izan du ezetik esan 40 orduko jai honetan egoteari. Pampina bertan izango da.



Martín Anso: 18 urteko gazte honek antzeztea du gustoko, batandian ibiltzen da, ez da lotsetan eta artista dela erakutsiko du oholtzara gainean.



Veronica Lopez: Euskaidun berria da eta solaskide bezala eragotzi goguen. Begiralea izandakoa, magisteritza ikaslea da eta berriki ama bezala estreinatuta da.



Enara Yeregui: Salbera da 20 urteko gazte hau musikaria, antzerkian ibiltzen da, kaskela... bere gaitasun guztiak oholtzara eraman ditiu.



Jose Mari Agirretxe: Eskarmentu gehien daukana bera da. Zortzi Maratoia izan da zortzikoteko kide eta aurtengoan oholtzan dena emateko prest da beti bezala.



Bea Egizabal: Ipuin kontalaria lehenengoz Maratoian zortzikoteko kide izango da. Pete Ipuinekin haur, zein helduek ilurratzeko dõhaina daukala erakutsiko du.



Rebecca Garcés: Laugarren Maratoia da berarentzat baina lehenengoaren ilusioarekin arri da presatzen. Festa barrudik bizi ahal izatea da berean gustatzen zatona.



Rosa Elizondo: Pozik dago zortzikoteko kide izatearekin. Xumea abesbatza antzen da eta antzerkia egiten hasi da berriki. Oholtzan ikasitakoak praktikan jarriko ditu.

OHARRAK.-

PILOTA.-

Giroko porra egiteko azken egunak

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak txirrindularitza porra antolatu du aurten ere. Honetan Giroa eta Tourra sartuko dira eta boleto onenak 1000 euro irabaziko ditu.

Maiatzaren 5ean Italiako Giroko lehengo etapa izango da Danimarkan eta honekin batera Ostadarreko porrari hasiera emango zaio.

Porran parte hartzeko txartelak ohiko tabernetan daude eta 7 euroren truke herritarrek haien gustuko diren txirrindulariak aukeratu ditzazkete.

Txartelak betetzeko eta entregatzeko epea bihar larunbata 21:00etan amaitzen da.

Sariei dagokionez, lasterketako etapa bakoitzean 60 euro egongo dira jokoan, sailkapen orokorreko lehenak 360 euro irabazi ditu eta bigarrenak berriz, 180 euro.

Era berean, urtero bezala zazpi urdaiazpiko zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean eta zortzigarrena azken sailkatuak eskuratuko du.

Gainera, sari berezia dago tabernarietzat. Puntu gehien batzen dituen taberna bi pertsonentzako afari bat irabaziko du Larre jatetxean.

San Pedro pilota txapelketa martxan

Beteranoen II. txapelketa ere antolatuko du Intza elkarteak

Intza elkarteak aurten ere San Pedro Jaiak esku pilota txapelketa antolatu du. Honetan herriko gaztetxoek parte har dezakete. Baina gurasoek ere pilota ederki astintzen dutela erakutsi ahal izango dute beteranoen II. txapelketan.

Nerea EIZAGIRRE

San Pedro jaiak gertu ditugu eta hainbat dira jaietan haien txapelketa-ri amaiera ematen dioten lehiaketak. Hauetako bat dugu Intza elkarteak antolatzen duen Esku pilotako San Pedro Jaiak XX. txapelketa.

Benjamin, alebin eta infantil mailako hurrek, hau da, 1999. eta 2003 urte artean jaiotako Lasarte-Oriako hurrek parte hartu dezakete.

Txapelketa larunbata eta igande goizetan jokatuko da Loidi-Barrengo pilotalekuan. Antolatzaileek aipatu dute-



Herriko txikiak eta ez hain txikiak esku pilotako txapelketan parte hartu ahaliko dute.

nez, finala eta final erdiak zuriz jantzita jokatuko dituzte parte-hartzaileek.

Benjamin eta alebinek pilota goxoarekin jokatuko dute, infantilek, berriz, tokeko pilotarekin.

Intzako antolatzaileek

azpimarratu dutenez, elkarteak ez da txapelketan zehar gerta litezken istripu edo lesioen erantzunle egingo.

Beteranoak

Era berean, iazko harrera ona ikusita esku pilotako Betera-

noen II. txapelketa ere jarriko du martxan elkarteak.

Honetan, 1976an urtean eta aurreko urteetan jaiotako herritarrek parte hartu ahal izango dute.

Txapelketako baldintzei dagokionez, pilota goxoarekin jokatuko da; saka hiritik hirura izango da eta 22 tantora izango dira partidak.

Hauetako ere, larunbata eta igande goizetan jokatuko dituzte partidak Loidi-Barrengo pilotalekuan eta finala eta final-erdiak zuriz jantzita jokatuko dituzte.

Izena ematea

Bi txapelketa hauetan izena emateko epea ireki du Intza elkarteak.

Interesa dutenek asteartean Michelingo pilotalekura edo ostegunetan Loidi-Barrengo pilotalekura hurbildu behar dira, 18:30etik 20:00etara eta Peio Sarasolaren galdetu behar dute.

Inskripzioa egiteko azken eguna maiatzaren 15a da. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, ez da izena ematerik hartuko epetik kanpo.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 5

Michelinen, 10:00etan

Ostadar-Aralar Intxurre
I. infantilak, kopa

Arizkorreta, Idiazabal, 11:00etan

Idiazabal-Texas Lasartearra
I. kadetea, kopa

Rezola, Añorga, 12:15ean

Añorga-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Michelinen, 13:00etan

Ostadar-Beasain Infantil txikiak, kopa

Michelinen, 14:30etan

Ostadar-Elgoibar I. kadetea, igoera

Usabal, Tolosa, 15:30etan

Tolosa-Ostadar Erregional Gorena

Michelinen, 16:00etan

Texas Lasartearra-Trintxerpe
I. jubentia, kopa

Unbe, Eibar, 16:00etan

Urki-Ostadar I. Erregionala, igoera

Zubieta, Hernani, 16:30etan

Hernani-Ostadar
Kadeteen Ohorezko maila, igoera

Harane, Usurbil, 17:30etan

Ostadar-Mariño
Emakumezkoen Erregionala, igoera

Michelinen, 17:45etan

Texas Lasartearra-Martutene
I. Erregionala, kopa

Igandea 6

Michelinen, 12:00etan

Ostadar-Usurbil Alebinak, kopa

Zaldupe, Ondarroa, 16:30ean

Aurrera-Ostadar

Jubenilen Ohorezko maila, igoera

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 4

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, Finalerako bidea

20:00etan, Txindoki-Izkiña
21:00etan, ISU Leioak-Buenetxea

Larunbata 5

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantsa,

Ligaxka

09:30ean, Illun-Trumoi

10:30ean, Ilargi-Oria kristaldegia

11:30ean, Los Tiburones Rojos-Viña del Mar

Kiroldegia, 16:15ean

ISU Leioak-EHU Campus Alava
Euskal Liga

Txikitto frontoia, Gallarta, 19:45ean

Meatzari-Aldaz H.K. Nazional III. maila



PILOTA

Larunbata 5

Michelingo pilotalekuan, 16:00etan

Intza-Ilunpe Udaberri txapelketa, esku
binaka, 2. urteko alebinak

Intza-Oiarpe Udaberri txapelketa, esku
binaka, infantilak

SQUASHA

Ostirala 4

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Xabier Amiano-Pablo Ferosolero
Roger Hidalgo-Iker Cañedo

Astelehena 7

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Francisco Delgado-Kinin Calvo
Fernando Montero-Raul Mateos

Asteartea 8

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Asier Munduate-Aitor Tejero

Asteazkena 9

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Javier Serrano-Oswal Cañedo
Iñaki Garcia-Juanjo Martin

Osteguna 10

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Javier Irimoto-Xabier Amiano
Iñaki Garcia Muñoz-Roger Hidalgo

JUDO

Igandea 6

Hernani, 09:00etatik aurrera

LOKEko alebinek Gipuzkoako
txapelketa dute.

ATLETISMOA

Larunbata 5

Donostia, 10:00etatik aurrera

LOKEko junior eta jubentia mailako
gazteek Euskadiko txapelketan parte
hartuko dute.

Igandea 6

Irun, 10:30ean

Landaberri eta Sasoeta ikastetxe
infantil mailako gazteek Gipuzkoako
eskolarteko txapelketa dute.



TRIATLOIA

Larunbata 5

Bermeo, 16:00etan

Herriko hainbat triatletek
Bermeoko triatloian parte hartuko
dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 5

Otxandio, 11:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta
herriko 2. urteko kadeteek
Gaztetxoak sarian parte hartuko
dute.

Lazkao, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta
herriko juniorrek XXXVI Lazkao
mendi proban parte hartuko dute.

Bergara, 16:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako
infantil mailako gazteek Bergarako
sarian parte hartuko dute.

Igandea 6

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak
Ziburura irteera egingo du.

Lizarrak, 11:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta
herriko lehenengo urteko kadeteek
Gaztetxoak saria dute.

Segura, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta
herriko juniorrek Santikutz proban
parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Igandea 6

Ubitarte, Andoain, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai taldeko maila
guztiek errugby erakusketara dute.

BOLO-JOKOA

Igandea 6

Legazpi, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bolo jokalariek
Gipuzkoako kopako saioa dute.

Agenda

Larunbata 5, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Bertsoa auzolanean

"Auzokoarekin Auzolanean" Udaberriko Bertso Saio berezia egingo da Manuel Lekuonan. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin batera, Ane Labaka eta Unai Muñoa herritarrak arituko dira lanean. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek aurkeztuko dute eta herriko hainbat kantari, dantzari, antzezle, musikari eta kirolarik parte hartuko du. Euskaraz. Sarrerak internet bidez 3 eurotako prezioa dute; leihatilan 3,20 euro.

Musika

EL BAR DE MAU

Ostirala 4, 20:00etatik 22:00etara
"Crimen X" hip-hop talde irundarrak bere diska berria "Lo llamaron crimen" aurkeztuko du.

Ostirala 4, 22:00etatik aurrera
DJ Rask eta "1 de 500"-en saioak izango dira entzungai.

SAGARDOTEGI KALEA

Ostirala 11, 20:00etan
Izaskun eta Uxue trikitilari eta pandero jolearen saioa.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzean zehar

Mundu Bat GKE-ren "Amerika erdialdeko emakumeak: halakoak gara, halaxe borrokatzen dugu" argazkien erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Maiatzaren 9tik 16ra

Lasarte-Oria elkarteke marrazki eta margo ikastaroko ikasleen erakusketa ikusgai izango da.

Bestelakoak

OKENDO PLAZA

Larunbata 5, egun osoa

Amaraun Klubeko Jaialdi handia izango da, bazkaria, puzgarriak, tailerrak, jokoak, berbena...

AZKORTE

Igandea 6, goiza osoa

Azkorteko erromerian musika, herrikirolak eta giro ederra izango da. Autobusak Biyak Bat egoitziatik.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 6, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Aita, zonia naiz" filma eskaniko da. Euskaraz. Sarrera 3,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 10, 21:00etan

Osteguneko zinea atalean, "Le Havre" filma eskaniko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz. Sarrera 4,40 euro.



Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 7, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen, Balioetan Hezi IX. jardunaldietan "Gatazkari hurbiltzea" hitzaldia eskainiko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 8, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen, Balioetan Hezi IX. jardunaldietan "Gatazken eta berradiskidetzaren aurrean norberaren konpromisoa" hitzaldia eskainiko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 9, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen, Balioetan Hezi IX. jardunaldietan "Gatazken eta berradiskidetzaren aurrean gizartearen konpromisoa" hitzaldia eskainiko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 10, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen, Balioetan Hezi IX. jardunaldietan "Sufrimendua eta gatazkak" hitzaldia eskainiko da.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 11, 20:30ean

"La lechuga" antzerki lana eskainiko du Glu-glu produkzioak. Gaztelaniaz. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan 6 euro.

Herritarren txokoa

Herri Urratsera autobusa

Ttaku kultur elkarteak maiatzaren 13an Senperen antolatuko den Herri Urratsera joateko autobusa jarriko du.

Txartelak salgai jarriko dira hurrengo egunetan Ttaku-eko bulegoan eta Jalgi kafe-antzokian.

Txartelak Ttakuneko kide eta gazteentzat 12 eurotan izango dira salgai eta gainontzekoek 14 euro ordaindu beharko dituzte.

Txakurra galdu da

Thor hiru urteko Spaniel Bretona galdu zen apirilaren 21ean Cocheraseko bidegorriaren inguruan. Kolore gorrixka du txuri gutxiarekin. Mikrotxipa dauka. Norbaitek aurkitu badu honako telefonoetara deitzea eskertuko genuke 687 571 037 eta 670 950 785. Sarituko da.

Maria Auxiliadora elkartearekin Lourdes-era txangoa

Maria Auxiliadora elkarteak Lourdes-

era txangoa antolatu du maiatzaren 13rako. Prezioa 27 euro dira. Izena emateko, 943 363 675, 943 360042 edo 943 364 296 zenbakietara deitu behar da gaueko 21:00etatik 22:00etara.

Irardokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko irardokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Ildatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irardokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Hemeroteka

Duela 1012 ale



Asteburu honetan Lasarte-Oriako bertso eskolako kideak entzuteko aukera izango da Udaberriko bertso saioan eta Azkorteko erromerian.

1993an, Lasarte-Oriako bertso eskolaren laugarren urtebetetzea zela eta, eskolako kideekin bildu zen Txintxarri aldizkaria eta batez ere, etorkizuneko gazteekin lanean hasteko asmo sendoa agertzen zuten. Honetaz gain, bertso eskolaren sorreraren nondik norakoak eta honen zer eginak azaltzen zituzten.

Elkarrizketan "herri honetan bertso eskola sortzea utopia zirudien, beraz, ez genuen miraririk espero," aipatzen zuten kideek, baita "pozgarria da, halere, bertso giroa pixkanaka-pixkanaka zabalitzen ari dela ikustea". Nork esango zien txapeldunekin jardungo zirela auzolanean!!!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Ixiar Rozas Idazle eta ikertzailea

“Idazten ez dudanean ere idatzi egiten dut”

Beste arlo batzuetan murgildu bada ere ez dio idazteari utzi lasarteoriatarrak

Ixiar Rozas, idazle lasarteoriatarra aspaldi atera zen Zabaleta auzotik Komunikazio ikasketak egitera, baina tarteka izaten dugu bere berri. Hainbat arlotan aritu da, eta azken urteotan arte eszenikoean eta horren ikerketan murgildu da. Ahotsaren inguruan egin zuen doktore tesia. Berak kontatu digu zertan diharduen.

Jon ALTUNA IZA

D enetarik egin du azken urteotan Ixiar Rozas idazleak. Ikasketez kazetaria, gerora idazle eta gidoigile, dokumental-zinema zuzendari, ikertzaile,... aritu da. Iaz aurkeztu zuen ahotsari buruzko tesia "Voicescapes, Ahotsaren, lengoaiaren eta ukimenaren esperientzia eta ahalmen-potentzia gaur egungo dantza erakustaldietan" Leioako Arte Ederretako Fakultatean.

Azken urteotan aste eszenikoetan murgildu bada ere ez dio idazteari utzi. Ixiar Rozas beraren ustez, "dena ikasketa prozesu baten barruan dago. Idazketa zentzu zabalean ulertzen dut, modu askotan idatz daiteke eta leku askotatik. Doktore tesia egiteko asko ikertu eta idatzi behar izan dut eta horrek ere nire krazio lana aberasten duela iruditzen zait. Bestalde, irudiarekin lan egiten dudanean, bideoarekin, idatzi egiten dut halaber. Koreografoekin eta artistekin kolaborazioak egiten ditudanean, praktika eszenikoetan, hori ere idazteko modu bat da. Gorputzarekin, gorputzaren mugimenduetan, espazioan idazteko aukera dugu. Praktikatik teoriara eta teoriatik praktikara, hor sortzen den espazioa, gunea, lekua, solasaldia, interesatzen zait".

Aspaldion ez duzu ipuin edota nobelarik argitaratu... idazten al duzu? Zertan ari zara?

Beti idazten dut. Idazten ez dudanean ere idatzi egiten dut, pentsa. Irakurtzen dugunean ere idatzi egiten dugu.

Eta buruko pentsamenduei bueltak eta ordena ematea, ez al da idaztea? Nahiz eta gero hori dena paperera ez eraman. Nonbait gelditzen da gordeta, eta gero zerbaitetan lanean zaudela atera egiten da, askotan ezustean. Une honetan hainbat proiektu ditut eskuartean, eskolak eman, hitzaldiak, laborategiak, testu laburrak... Eta guztien gainetik, amatasuna, hori maiuskulatan. Beti dut zerbait eskuartean.

Performaktibitateari buruz jardun zara. Zer da ba darabilzun kontzeptu hori? Ba al duzu labor-labor azaltzerik...

Zaila da horrelako kontzeptu konplexu bat labor azaltzea. Eta serioegia jarriko naiz... Arlo eta ezagutza eremu askotan erabiltzen den hitza da, baina 50. hamarkadatik, lengoaiaren filosofiatik dator: nola egin ekintzak hitzekin, hori litzateke oso modu laburrean.

Aspaldian Performance bat edo beste egin duzue...

Lehen aipatu bezala, bai, arte eszenikoan arloan murgildu naiz azken hamar urteotan, modu praktikoa eta teorikoa. Pieza eszenikoetan lan egin dut



Ixiar Rozas, behean, "4 ibilbide eta beste argazki batzuek" lanaren erakustaldi batean.

zuzenean: nire testuak erabiliz eta baita eszenan egonda ere.

Eta zeharka ere bai, dramaturgia lanetan. Dantzaren arloan gehienbat eta, beste artista batzuen artean, Idoia Zabaleta koreografoarekin lanean. Beiruten, esate baterako, gero hainbat lekutan aurkeztu genuen "4 ibilbide eta beste argazki batzuk" pieza eszenikoa sortu genuen 2007an.

Omitorrinkus, proiektuan ere parte hartu duzu, zertan konkretuki? Zer deritzozu?

Lan interesgarria da. Esperimentatzea eta ezagutzen ez dituzun guneean barneratzea aberasgarria izan ohi da artista batentzat. Diskorako testu bat idazteko eskatu zidaten, eta gustura hartu nuen parte proiektuan.

Zure doktore tesia, ere bide horretatik doa, ahotsa eta dantza lotu eta ikertu zenituen. Laburbilduko al zenuke bere oinarria?

Zaila da oso horrelako lan mardula hitz gutxitan azaltzea. Eta serio jarriko naiz berriro... Eguno dantzaren eszena lengoia eta ahotsaren erabilerak dituen ondorio estetiko eta politikoei buruz idatzi dut.

Iruñean ikasi zenuen komunikazioa duela urte batzuek, eta tesia Bilbon aurkeztu, iaz, zein lotura duzu Arte Ederretako fakultatearekin?

Hor irakurri dut tesia, hori da dudan lotura. Euskal Herriko unibertsitateetan egun ez dago oraindik arte eszenikoan departamendurik, arte eszeni-

koei begira goi mailako ikasketarik.

Urte batzuetako atzerape-na dugu horretan, beste herrialde batzuekin konparatuta. Horregatik jo nuen Arte Ederretako fakultatera. Beste ikerlari bat dago nire egoera berdinean.

Kanpoan hasitako ikasketak hemen amaitu nahi nituen, hemen amaitu nahi nuen doktore tesia.

Euskaraz bakarrik argitaratu al duzu ala beste hizkuntzetara itzulita daude zure lanak?

Hainbat hizkuntzatan irakur daitezke nire testuak, ingelesez, italiaraz, portugesez, gaztelaraz...

Euskaraz eta gaztelaraz idazten dut, bietan. Zorione-kok garra gu elebidunak izateagatik.

Aspaldi atera zinen herritik, Herriko zein oroitzapen nabarmenduko zenuke? Etorzten al zara tarteka?

Bai horixe, gurasoen etxera joaten naiz, Zabaleta Auzora. Auzoko oroitzapenak badituz, bai.

San Juan suan egiten genituen ur-globoen gerrak, hori gogoratzen dut adibidez, korrika eta korrika ordu txikiak arte.

Min ematen du orain nola hondatzen ari diren ikustek. Eraikitza lan berrietan ari naiz. Herriak duen birikietako bat horrela hondatzea.

Jakina da eraikuntzan azken urte hauetan onahia egin diren gehiegikeriak, atzean dauden interesak, espekulazioa...

Zubietan egiten ari direna ez aipatzeagatik. Mendi bat hondatu eta orain lanak utzi... Nola liteke?



IES BHI
LASARTE • USURBIL

LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA





• D.B.H.
• BATXILERRA

Zure
aukera



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1- LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277